

EUSKAL ZINEMAREN GALA



Euskal zinemaren zuzendarien ibilbidean ezinbestekoa izan da Txepe Lara

NORA ASKARGORTA

Aurpegi ezagun asko Victoria Eugenia antzokian ospatutako Euskal Zinemaren Galan. Bertan Txepe Larari Zinemira saria emateaz gain *Agur Etxebeste*, Telmo Esnal eta Asier Altunaren filma estreinatu zen.

Bi zuzendari hauen eskutatik jaso zuen Larak saria eta Telmo Esnalek anekdota bat kontatu zuen. Lehen la-

nean hasi zenean, laguntzen zebilela, furgoneta gidaria ote zen galdetu zion Txeperi; eta honek ekoizle exekutiboa zela erantzun zionean, “har! Zein gaizki dabilen euskal zinema” pentsatu zuela aitortu zuen Telmok humorez.

Gure zinemaren historian funtsezkoak diren profesionalen ibilbidean ezinbestekoa izan den Jose Maria ‘Txepe’ Lara ekoizlearen lana oparoa izan da: *Hamaseigarrenean aidanez*,

Zergatik panpox?, *Adiós, pequeña*, *Ander eta Yul*, *Justino, un asesino* eta beste asko eta asko.

Horrez gain, zinemagile hasiberrei emandako babes eta laguntzagatik nabarmendu da Lara; berarekin lan egin dute, besteak beste, Daniel Kalparsorok, Mercedes Alvarezek, Asier Altunak eta Telmo Esnalek.

Atzokoan euskal zinema bere has-tapenetan ezagutu zuen ekoizle nafa-

rrak, bere ibilbidean parte hartu duten zuzendari, teknikari eta beste askori eskerrak eman ondoren, garai ezberdinak eta gogorak gogoratu zituen bere hitzekin.

Gaur egun ere, egoera ez duela ondo ikusten eta etxegabetzei buruzko laburmetrai bat bultzatu nahian, *crowdfunding* bat jarri du martxan. Samuel del Amorrek zuzenduko duen film labur hau etxegabetzei buruz izango da,

baina batez ere kalean, etxerik gabe, geratzen diren haurren egoera salatuz.

Zinemira sariaz gain, *Agur Etxebeste* pelikula ikusi ahal izan zen. *Aupa Etxebeste!* arrakastatsuen jarraipena. Bertan Patrizio eta Maria Luisa senar-emazteen abentura berriak ikusi ahal izan zituzten.

Nola ez, bi zuzendariekin, Ramon Agirre, Elena Irureta eta Iban Garate aktoreak igo dira oholtzara. “Hori izan da hain justu guretzat oparia, berriz ere *Aupa Etxebeste!* filman izan genuen taldea biltzea, ez bakarrik aktoreak, baita teknikari eta beste guztiak ere”, aipatu zuen Telmo Esnalek filmari paso eman aurretik.






: Zinemaldiko informazio guztia
www.naiz.eus
naiz: